



Txano Gorritxoren azala (1976). Kintanak eta Olariagak telebistako "Pinpilinpauxa" saiorako moldatutako ipuina, paperean "Pinpilin Sorta" sailean argitaratua

Iker taldea (1972-1978) Santutxuko Karmelo eta Erandioko ikastoletako euskaltzale talde batek sortu zuen 1970eko hamarkadan, frankismo amaieran. Ikastolak hedatzen ari ziren, eta, testuinguru horretan, Iker taldearen helburua zen (Gipuzkoako Gordailurena bezala) euskarazko irakaskuntzarako materiala sortzea, euskara eta berrikuntza pedagogikoa sustatuz. Testuliburu eta irakurliburuak argitaratu zituzten disko argitaldari modura sortutako Cinsa zigilupean. Proiektu honetan jardun zuten egile eta itzultzaileen artean nabarmenduko ditugu, besteak beste, N. Arregi, J. Zuloaga, X. Kintana, X. Mendiguren eta J. R. Etxebarria, edota, ilustratzaileen artean, A. Olariaga, J. C. Eguilleor eta A. Zumalabe.

Hasieratik, euskara batuaren aldeko apustua egin zuen Iker taldeak, eta bere egin zituen garai hartako joera pedagogiko berriak. Ildo horretan, 1974an, *Saioka* proiektua jarri zuen martxan, luzaroan ikastetxe askotan erabili izan den metodoa. Ikasgai guztiak bi liburutan banatzen zituen metodo honek; batetik, edukiei zegokien liburuxka eta, bestetik, ariketa gehigarriei zegokiena. Helburua zen, European hedatzen ari ziren joera pedagogikoekin bat, haurren ulermena sustatzea, edukiak buruz ikasgarazi beharrean.

Haur eta gaztetxoentzako irakurgaiak ere argitaratu zituen Iker taldeak, esaterako, abenturazko klasikoen itzulpenak: "Gazteriaren Literatur Altxorra" sailean argitaratu zituzten D. Defoeren *Robinson Crusoe*, J. Spyriren *Heidi* edota E. Salgariren *Morgan*, *Sandokan* eta *Pirataren emaztea*.

Interesgarriak dira, halaber, “Haurrentzako ipuinak” liburuxka bilduma eta “Pinpilin Sorta”, telebistarako ipuin saila, paperean inprimatuta. Haurrentzako euskarazko telebista saio bat zegoen honen oinarrian. Izan ere, hainbat ipuin moldatu zituzten X. Kintanak eta A. Olariagak telebistarako, diaporama sinple batzuen bidez; “Pinpilinpauza” izeneko saio laburrean ematen zituzten, *Euskalerrria* albiste emankizunarekin batera, Telebista Espainiarreko bigarren katean.

Izaro Arroita Azkarate
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Bibliografia

CALLEJA, Seve. *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986ra arte*. Bilbo. Labayru Ikastegia – Bilbo Bizkaia Kutxa. 1994.

DAVILA BALSERA, Paulí. “La renovación pedagógica en el País Vasco (segunda mitad del siglo XX)”. In *Sarmiento* (2005), zk. 9, or. 85-103.

Dokumentu hau aipatzeko: Arroita Azkarate, Izaro. (2019). “Iker taldearen (1972-1978) soslaia”. In *MHLI-Memoria Historikoa Literatur Iberiarretan*. URL: <https://mhli.net/artxiboa/iker-taldea/>